

1.BALIO PROPOSAMENA

- Zergatik Haur-Gau?

- Azken 60 urteetan jaiotza tasa txikitzen hasi da eta aurreko urteekin alderatuta gaur egun datu kezkarriak jasaten ari gara. Gure gurasoen belaunaldiarekin alderatuta (70. hamarkada), familiek gaur egun 1,54 haur gutxiago edukitzen dituzte.

- Zein da tendentzia honen justifikazioa? Galdetegi anitz batzuen esker, ondorioztatu degu gaur egungo gazteek ez dituztela haurrik izan nahi ondorengo arrazoiengaitik:

- a. Lehenik, haur bat edukitzearen kostuak oso altuak dira. ABC aldizkariak dioenez, haur bat bere lehen urtean mantentzearen kostua 6.000-11.000€ tan dabil. Gazte bat 18 urteetara mantentzearen kasuan, 104.000€koa da.

- b. Bigarrenik, laguntza ekonomikoak. Europar Batasunean familiei laguntza ekonomiko gutxien eskaintzen dituen herrialdea Espainia da. Ondorioz, gazteek arazo gehiago dituzte famili bat eratzeko orduan.

- c. Hirugarrenik, gizarte baloreak eta ohiturak urteen poderioz aldatuz joan dira. Gaur egun ezkontzek ez dute historian zehar izan duten pisu bera, erregistro zibilak 43.000 ezkontza gutxiago erregistratzen ditu urtetik urtera. Ezkontza-hausteen kasuan, izugarritzko igoera izan dute azken bi hamarkadetan: 4,7 minuturo bikote-ezkondu bat hausten da, ABC aldizkariak dioenez.

- d. Azkenik, Alejandro Macarrón ek esan zuena eta gure proiektua sortzeko inspirazio gisa erabili genuen esaldi ospetsua: “no es hoy una prioridad para los jóvenes (tener hijos y formar una familia). Prefieren mantener su zona de confort, viajar... Son mucho menos esforzados y sufridos que nuestros antepasados”

Espainiako behatoki demografiko kide den Alejandrori esker, gauetan martxan dabilen haurtzaindegia proposatzen ditugu. Gazteek, haurrak dituzten einean, beraien interesak elikatzen mantentzeko.

